



Andoaingo Udalak hondakinen gaikako bilketa hobetzeko deia egin die herritarrei

Izagirrek azpimarratu duenez, "pandemiak ezin du izan erne egoteari uzteko arrazoi", eta ohartarazi du "2022an % 70eko helburura iristeko, ahalegin kolektibo zabala" egin beharko dela.

Ecovidrio, Ecoembes eta Eusko Jaurlaritzaren birziklatze kanpaina, ontziei bigarren bizitza bat ematearen garrantzia azpimarratu nahi duena, Andoaingera iritsi da larunbat honetan. *Ekoadrila* (www.ekoadrila.eus) da asteburuan Juanita Alkain plazan kokatu den kontzientziazio kanpainaren protagonista: **Detergenteberri**, plastikozko ontzien ondorengoa; **Lataburu**, metalezko ontzi ugariren ondorengoa; Kajaguren, kartoi eta paperen ondorengoa eta **Fraskobide**, botilen eta beirazko potoen ondorengoa.

Ekimenaren aurkezpenean, Mari Jose Izagirre, Zerbitzu zinegotziak azpimarratu du "Andoaingo herriak gaikako bilketarekin eta birziklapenarekin duen konpromisoa ukaezina" dela, baina ohartarazi du pandemiak ezin duela izan "erne egoteari uzteko arrazoi". Izagirrek azaldu duenez, 2021ean herrian pilatutako gaikako bilketaren tasa % 64koa da, "% 65 baino pixka bat txikiagoa, hain justu, udal ordezkari politiko guztien artean adostu zen maila". Era berean berean, Europar Batasunak "2022 urterako ezarritako % 70eko helburura iristeko ahalegin kolektibo handia" egin beharko dela ohartarazi du Izagirrek.

Andoaingen 370.000 kilo hondakin inguru sortzen dira hilean (edukiontzien bilketa eta ostalaritza bezalako jardueretatik datorren bilketa batuz). 2021ean sortutako eta edukiontzietan bildutako hondakinaren banakapena honela banatzen da: % 37ko errefusa, % 20ko organikoa, % 13ko ontzi arinak, % 10eko beira eta % 16ko papera, hau da, biztanle bakoitzeko egunean sortutako 0,8 kilogramoko ratioan islatzen dena.

Izagirreraren arabera, "edukiontzi grisera botatzen dugun errefusa murriztu behar dugu, eta organikoa edo plastikoa zenbat eta hobeto bildu, orduan eta errefus gutxiago sortuko dugu".

Andoaingo Udalak onartzen du Covid-19a dela eta gaur egungo testuinguruak ez dituela gauzak erraztu, baina andoaindarrak gero eta gehiago eta hobeto birziklatzera gonbidatzen ditu, gure gizartearentzat eta planetarentzat hainbeste onura dituen ahalegin txiki hori indartuz.

Andoaingo Udala, 2021eko irailak 13



El Ayuntamiento de Andoain llama a la ciudadanía a mejorar la recogida selectiva de residuos

Izagirre subraya que “la pandemia no puede ser motivo para bajar la guardia” y advierte que “para llegar al objetivo 70% en 2022 hará falta un amplio esfuerzo colectivo”.

La campaña de reciclaje de Ecovidrio, Ecoembes y Gobierno Vasco, centrada en destacar la importancia de dar una segunda vida a los envases, ha llegado este sábado a Andoain. La *Ekoadrila* (www.ekoadrila.eus) es la protagonista de la campaña de concienciación que ha desembarcado el fin de semana en la plaza Juanita Alkain. Los protagonistas son: **Detergenteberri**, descendiente de envases de plástico. **Lataburu**, descendiente de múltiples envases metálicos. **Kajaguren**, descendiente de cartones y papeles. Y **Fraskobide**, descendiente de botellas y tarros de vidrio.

En su presentación, la concejala de Servicios, Mari Jose Izagirre, ha destacado que “el compromiso del pueblo de Andoain con la recogida selectiva y el reciclaje es innegable” pero ha subrayado que “la pandemia no puede ser motivo para bajar la guardia”. Izagirre ha explicado que la tasa total acumulada de recogida selectiva en el año 2021 en la localidad roza el 64%, “cifra ligeramente inferior al 65% y que fijamos entre todos los representantes políticos municipales para este mismo año, un objetivo de obligado cumplimiento que establece la Unión Europea para 2035”. Ha advertido que “para llegar al objetivo 70% en 2022 hará falta un amplio esfuerzo colectivo”.

En Andoain se generan al mes alrededor de 370.000 kilogramos de residuos (sumando la recogida de contenedores y la de generadores especiales como la hostelería). El desglose del residuo generado y recogido en contenedores en 2021 se divide de la siguiente forma: rechazo 37%, orgánico 20%, envases ligeros 13%, vidrio 10% y papel 16%, que se refleja en un ratio de 0,8 kilogramos generados por habitante/día.

Según Izagirre “tenemos que reducir la cantidad de rechazo que depositamos en el contenedor gris, e incrementar los niveles del orgánico o el plástico, cuanto mejor se realice la recogida selectiva, menos rechazo vamos a generar”.

El Ayuntamiento de Andoain reconoce que el actual contexto tan complicado debido a la COVID19 no ha facilitado las cosas, pero invita a las y los andoaindarras a reciclar cada vez más y mejor, reforzando este pequeño esfuerzo que tantos beneficios tiene para nuestra sociedad y el planeta.

Andoain, 13 de septiembre de 2021